

Oñatiko EAJ-PNV udal taldeak: "Zinegotzi lana egoki betetzeko eta oñatiarren interesak behar bezala ordezkatzeko baldintza duinak bermatzea eskatzen diogu Oñatiko alkateari"

- Bulego irisgarria izatea eskatu du udal talde jeltzaleak, baita, EUDELen gomendioei jarraiki, lan-batzorde kopurua 15etik 4ra murriztea ere (Erakundea, Lurraldea, Herritarrak eta Ekonomia), eraginkortasunez lan egin eta erakundearen barne-antolaketa hobetu ahal izateko.
- Eskaera horiekin batera, Oñatiko EAJ-PNVk aldiriko langile baten laguntza (aholkularia) jaso ahal izatea eskatu dio alkateari, eta hori, EUDELe jasotako legeriaren arabera, udal-talde guztiei aitortutako eskubidea da.

2023-27 legealdia berria hasi berritan, eta lan-baldintza duinak eta dinamikoak finkatzeko asmoz, azken aste hauetan, Amaia Erostarbe udal talde jeltzalearen bozeramaileak hainbat elkarriketa izan ditu alkatearekin, eta, horietan, zuzenean eskatu dio EAJ-PNVk bulego irisgarria izatea udaletxean, 'EH Bilduren udal-taldeak dituen bi bulegoak bezain irisgarria'. Era berean, behin-behineko langile baten laguntza eskatu du udal taldearentzat, aholkulari lanak egingo dituen.

Bulego irisgarria

Bulegoaren eskaeraren inguruan, duela 12 urtetik udaletxeko azken solairuan, eraikinaren teilatupean, irisgarria ez den eta herritarren eskura edo begi-bistan ez dagoen espazio txiki bat dutela adierazi dute jeltzaleek. "Oñatiarren ordezkari gisa, zentzuzkoa deritzogu lanerako espazio egoki bat izatea, udaletxeko behe edo lehen solairuan. Arrasateko Udalean, zein Bergara edo Elgoibarko Udalean ere, beste hainbatetan bezala, udal talde guztiek bulego propioa dute leku eroso, irisgarri eta ikusgarri batean", gaineratu du bozeramaile jeltzaleak.

Eskaerari dagokionez alkateak aitzakia gisa Udaletxean leku nahikorik ez dagoela esan diola adierazi du Oñatiko EAJ-PNVk. Hala ere, EAJ-PNVren udal taldeak eskaera honen garrantzia berretsi du eta oraingoan publikoki egin dio eskaera bera alkateari.

Behin-behineko langilea, aholkulari lanak betetzeko

Era berean, aholkulari lanak egingo dituen behin-behineko langile baten laguntza jaso ahal izatea eskatu dio EAJk Oñatiko alkateari. EUDELe jasotako legeriaren arabera, Udaleko udal-talde guztiei aitortzen zaie eskubide hori. Arrasaten, adibidez, liberatutako zinegotziez gain (EH Bilduko 5 eta EAJko 1), alkateak behin-behineko langile bat (aholkularia) izendatu du EH Bilduren udal talderako, 'eskaera hori onartzea alkatetzari baitagokio zuzenean', azaldu du Amaia Erostarbek. 'Oñatiko EAJ-PNVk ez du inolako liberaziorik legegintzaldi honetarako, eta EH Bilduk Arrasateko Udalean egin duen gauza bera eskatzen dugu. Hala ere, 3 aldiz eskatu arren, eskubide hori ukatu egin zaigu', gehitu du.

Hori horrela, 'alkatetzaren zuzenketa edo erantzun azkarra' espero duela esan dute jeltzaleek, zinegotzi lanak egoki betetzeko eta oñatiarren interesak behar bezala ordezkatzeko baldintza duinak izatea funtsezkoa dela gogoraraziz.

Batzorde kopuruaren murrizketa

Azkenik, ekainaren 17an Oñatiko Udalean egin zen antolaketa orokorreko osoko bilkuran, EAJ-PNV udal taldeak lan-batzordeak berregituratzea proposatu zuen, eraginkortasunez lan egin ahal izateko eta erakundearen barne-antolaketa hobetzeko. Horretarako lan-batzorde kopurua 15 izatetik (Oñatiko osoko bilkuran onartutakoak) 4ra murriztea proposatu dute jeltzaleek, kasu honetan ere, EUDELen gomendioari egiten dio erreferentzia. 'Eibar izan ezik, ez dugu horren

informazio-batzorde kopuru handia duen herririk, eta hain zuzen kopuru hori eraginkortasunez lan egiteko kaltegarria dela deritzogu', adierazi du Oñatiko EAJ-PNVk.

Udal talde jeltzaleak egungo 15 batzordeak 4 batzorde hauetan berrantolatzea proposatu du: Antolaketa, Lurraldea, Herritarrak eta Ekonomia. Udal taldeak azaldu duenez, neurri honek Udalaren eraginkortasuna eta barne antolaketa hobetzea du helburu, lan egitura sinplifikatuz. 'Berregituraketa horrek Udaleko sailen eta arloen arteko komunikazioa eta koordinazioa hobetzen lagun dezakeela uste dugu, baita baliabideak optimizatzen eta administrazio-prozesuak arintzen ere", amaitu du Oñatiko EAJ-PNVk.

El grupo municipal de EAJ-PNV de Oñati: ‘Solicitamos a la alcaldesa unas condiciones dignas para el adecuado desempeño de las funciones de concejal/a y la representación de los intereses de los oñatiarras’

- *El grupo municipal de EAJ-PNV solicita un despacho accesible y ha propuesto, atendiendo a las recomendaciones de EUDEL, reducir el número de comisiones de trabajo de 15 a 4 (Organización, Territorio, Ciudadanía y Economía), para poder trabajar con eficiencia y mejorar la organización interna de la institución.*
- *Junto con dichas solicitudes, EAJ-PNV de Oñati el grupo municipal de EAJ-PNV ha solicitado también a la alcaldesa la asignación de una persona trabajadora eventual (asesor/a), que de acuerdo con la legislación recogida por EUDEL, es un derecho reconocido a todos los grupos municipales.*

Recién iniciada la nueva legislatura 2023-27 y con el fin de asentar unas condiciones dignas y dinámicas de trabajo, durante estas últimas semanas, la portavoz del grupo jeltzale Amaia Erostarbe ha mantenido diversas conversaciones con la alcaldesa en las que le ha solicitado de forma directa un despacho accesible para el grupo municipal de EAJ/PNV en el edificio del ayuntamiento, igual de accesible que los dos despachos que tiene el grupo municipal de EH Bildu; también ha pedido la asignación de una persona para el grupo municipal de EAJ-PNV que cumpla las funciones de asesor/a.

Un despacho accesible

En torno a la solicitud del despacho, EAJ-PNV de Oñati señala que ‘Actualmente, desde hace 12 años, contamos con un pequeño espacio de trabajo, pero este espacio está ubicado en la última planta del Ayuntamiento, bajo el techo del edificio y no es accesible y mucho menos visible a la ciudadanía’. ‘Como representantes de las y los oñatiarras, creemos que es razonable contar con un espacio adecuado de trabajo, en la planta baja o primera planta del Ayuntamiento. En el Ayuntamiento de Arrasate, así como en el de Bergara o Elgoibar, como en muchos otros, todos los grupos municipales cuentan con un despacho propio en un lugar cómodo, accesible y visible’, ha añadido la portavoz jeltzale.

Sin embargo, EAJ-PNV de Oñati señala que, en relación a dicha solicitud la alcaldesa se excusa en que no existe suficiente espacio disponible en el edificio del Ayuntamiento de Oñati. No obstante, el grupo municipal de EAJ-PNV reitera la importancia de esta solicitud y vuelve a solicitárselo a la alcaldesa, esta vez públicamente.

Trabajador/a eventual para cumplir las funciones de asesor/a

Asimismo, y de acuerdo con la legislación recogida por EUDEL (Asociación de Municipios Vascos), ha pedido a la alcaldesa la asignación de una persona trabajadora eventual para el grupo municipal de EAJ-PNV que cumpla las funciones de asesor/a. De acuerdo con la legislación recogida por EUDEL, este derecho es reconocido a todos los grupos municipales del Ayuntamiento. En Arrasate, por ejemplo, además de las y los concejales liberados (5 de EH Bildu y 1 de EAJ), la alcaldesa ha nombrado a un/a trabajador/a eventual (asesor/a) para el grupo municipal de EH Bildu, ‘porque bien es cierto que la aprobación de esta solicitud recae sobre la alcaldía directamente’, ha explicado la portavoz jeltzale, Amaia Erostarbe. ‘EAJ-PNV de Oñati no tiene ninguna liberación para esta legislatura y lo que solicitamos es lo mismo que ha hecho EH Bildu en el Ayuntamiento de Arrasate. No obstante, y a pesar de haberlo pedido ya en 3 ocasiones se nos ha negado tal derecho.

Así pues, el grupo municipal jeltzale dice esperar ‘una pronta rectificación/respuesta de la alcaldía’, recordando que ‘es fundamental contar con unas condiciones dignas para el adecuado desempeño de las funciones de concejal/a y para la representación de los intereses de los oñatiarras’.

Reducción del número de comisiones

Por último, en el pleno de organización general celebrado el pasado 17 de junio en el Ayuntamiento de Oñati, el grupo municipal EAJ-PNV presentó como propuesta la reestructuración de las comisiones de trabajo para poder trabajar con eficiencia y mejorar la organización interna de la institución. Dicha propuesta se basa en reducir el número de comisiones de trabajo de 15 (las aprobadas en dicho pleno de Oñati) a 4 y hace referencia a la recomendación de EUDEL. ‘No conocemos ningún otro Ayuntamiento, salvo Eibar, que tenga un número tan alto de comisiones informativas y creemos que es contraproducente para trabajar de forma eficaz y efectiva’, ha señalado EAJ-PNV de Oñati.

El grupo municipal jeltzale ha planteado reorganizar las actuales 15 comisiones en las siguientes 4: Organización, Territorio, Ciudadanía y Economía. Según explica el grupo municipal, esta medida busca mejorar la eficiencia y la organización interna del Ayuntamiento, simplificando la estructura de trabajo. ‘Creemos que esta reestructuración puede contribuir a una mejor comunicación y coordinación entre los departamentos y áreas del Ayuntamiento, y a optimizar los recursos y agilizar los procesos administrativos’, ha añadido EAJ-PNV de Oñati.